

## URUMEA

sagardoa

# Zapiain sagardoa irabazle bertakoen artean; Egoitz Zapiain eta Paul Vanderrena, bereziena

Kronika - Erredakzioa 2019-11-28 00:00



Saritutako sagardogileak, txapela eta dominekin asteleheneko ekitaldian.

Euskal-estatubatuar zaporeko 'Maiti fresh' sagardo bereziak jaso zuen 'Best of show' izendapena. Hernani eta Astigarragako sagardotegiek, domina sorta ederra.

Astelehenean bukatu zen aurtengo Sagardo Foruma, Donostiako Kursaallean; eta bertan banatu zituzten, Nazioarteko Sagardo Lehiaketaren sariak, bederatzik kategoriatan.

Euskal Herrian ekoiztutako sagardoen artean, Zapiainek eskuratu zuen onenaren saria; eta makina bat domina lortu zituzten, Urumea bailarako sagardotegiek. Astigartarren artean, Zapiainek hiru urre, Alorreneak bi urre, Petritegik urre bat, Gurutzetak bi zilar, eta Gartziategik zilar bat eta brontze bat.

Eta hernaniarren artean, urre bat eta zilar bat eskuratu zituen Zelaiak.

Egoitz Zapiain astigartarrak ere eskuratu zuen zilarrezko domina, Paul Vander estatubatuarrarekin batera egin duen sagardo batekin. Baina haiek, sari potoloagoa ere jaso zuten: Best of show (ekitaldiko onena) izendatu zuten, beraiek aurkeztutako Maiti fresh sagardoa, euskal-estatubatuar zaporekoa, bereziena izategatik.

Gainerako kategorien artean, beste sari nagusi bat ere jaso zuen Zapiain sagardotegiak: izotzezko sagardo onena izendatu zuten Bizi-Goxo 2015.

190 sagardo aurkeztu ziren guztira lehiaketara, eta sariak banatzeko, mundu osoko dastatzaile ospetsuek dastatu zituzten. 140 domina banatu zituzten guztira: urrezko 47, zilarrezko 62, eta brontzezko 31. Ohorezko bi sari ere eman zizkieten, kategoriatik kanpo, Sidra Panizales eta Roxmut sagardotegi asturiarrei.

[Kultura Astigarraga Hernani](#)

Erantzun ▼



## Ikusienak



[Udazken koloreak atzera, marroitik berdera](#)

Kronika - Erredakzioa  
aza 26

[Urumea](#)



[Ttapa Ttaparekin ibilaldia gaur goizean, baita Astigarragako adinekoek ere](#)

Kronika - Erredakzioa  
aza 27, 00:00

[Astigarraga Hernani](#)



['Amonaren istorioak' ipuin kontaketa, abenduaren 27an](#)

Kronika - Erredakzioa  
aza 27, 00:00

[Goizueta](#)



[Idoia Esnaolak bere 100garren maratoia amaitu du eta Unai Santamaria izan da bailarako aurrena](#)

Kronika - Erredakzioa  
aza 26

[Astigarraga Hernani](#)



[Eukene jantxidenda, Beterri-Buruntzako bitxia](#)

Kronika - Erredakzioa  
aza 27, 00:00

[Hernani](#)



[Zapiain sagardoa irabazle bertakoen artean; Egoitz Zapiain eta Paul Vanderrena, bereziena](#)

Kronika - Erredakzioa  
aza 28, 00:00

[Astigarraga Hernani](#)

## Kronika.eus

Dobera Euskara Elkarte

Larramendi kalea 11, Hernani

Tel.: 943 33 08 99 · 688 660 714 · kronika[ABILDUA]kronika.eus



Codesyntaxek garatua



[HONI BURUZ](#)

[LEGE OHARRA](#)

[PUBLIZITATEA](#)

[ARAUAK](#)

[HARREMANETARAKO](#)

[RSS](#)



Gertuko informazioa, euskaraz

[AIARALDEA](#)

[AIKOR](#)

[ANBOTO](#)

[ATARIA](#)

[BALEIKE](#)

[AIURRI](#)

[ERRAN](#)

[EUSKALERRIA IRRATIA](#)

[GOIENA](#)

[GUAIXE](#)

[HIRUKA](#)

[KARKARA](#)   [MAXIXATZEN](#)   [PLAENTXIA](#)   [ALEA](#)   [28 KANALA](#)   [ANTXETA](#)   [BARREN](#)   [ERLO TELEBISTA](#)   [GEURIA](#)   [GOIERRI TELEBISTA](#)

[KRONIKA](#)   [MAILOPE](#)   [NOAUA](#)   [DEUSTUALDEA PREST](#)   [TXINTXARRI](#)   [URIOLA](#)   [UZTARRIA](#)   [AMEZTI](#)   [OIZMENDI TELEBISTA](#)

[Gurean](#)   [Plazanbazan](#)   [Ttap](#)

[Tokikom publizitatea](#)